

MUko Goi Eskola Politeknikoak diplomak banatuko dizkie 2. Zikloko Ingeniaritza ikasketak egin dituzten 187 Ikasleri eta 14 Doktoreri

2008/04/28

Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoak diplomak banatu dizkie 2006/2007 ikasturtean 2. zikloko ingeniaritzako ikasketak bukatu zituzten 187 ikasleri eta aldi berean, Mondragon Unibertsitateko 14 doktorek jasoko dituzte diplomak.

Diploma-banaketa, Arrasateko Amaia Antzokian izan da apirilaren 25ean arratsaldeko 18:00etan. Vicente Atxa Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko zuzendariak eman dio hasiera ekitaldi akademikoari, eta Iosu Zabala Mondragon Unibertsitateko Errektoreak amaiera. Diplomak banatzeko ekitaldian, Pedro Luis Uriarte Innobasqueko Presidenteak 'Berrikuntza: erronka eta aukera zuretzat' hitzaldia eman du.

Titulazioen azterketa

Guztira, 187 ikaslek jaso dute Ingeniaritzako titulua, beren titulazioetako ikasketak gainditu ostean eta beste 14 ikasleri Mondragon Unibertsitateko Doktore titulua eman zaie. Sexuaren araberako azterketa eginez, ikasle guztien ia %23,79 emakumeak dira.

Titulua eskuratzeko, ikasle guztiek egin behar izan dute Ikasketa Amaierako Proiektua enpresaren batekin elkarlanean: Airbus France, Alecop, Arcelor, Astilleros de Murueta, Danobat, Edertek, Eroski, Grupo Fagor, Grupo Ulma, Ibermatica, Ideko, Ikerlan, Orona, Ulma y Mondragon Sistemas, besteak beste.

Honako datu hau ere garrantzitsua da: ikasketak amaitu eta titulua eskuratuta, Ingeniaritzako ikasleen %99k hiru hilabeteren buruan aurkitzen dute lana.

